



XXII. EUSKAL LEHIAKETA TXISTE GRAFIKOEN



2013



HONDARRIBIKO UDALA



UDAL
EUSKARA ZERBITZUA
HONDARRIBIA

OINARRIAK

Lehiaketa honetan edonork parte har dezake.

Lehiaketak 3 maila izango ditu:

A: 16 urtez gorakoentzat

B: 12 urtetik 16 bitartekoentzat

D: 12 urtetik beherakoentzat

Gaia eta teknikak libreak izango dira.

Lan bakoitzak bineta bat bakarrik izan beharko du eta ezinbestekoa da “bokadiloaren” teknikaren erabilera. Narrazioaren bidezko txisterik ez da onartuko. Testua ezinbestekoa da eta euskaraz izan beharko du.



Neurriak:

A eta B mailetan DINA-3

D mailan DINA-4

Lan bakoitzak bere izenburua izango du eta lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da datu hauekin: gutun-azalaren gainean lanaren izenburua eta zein mailatan aurkezten den, eta barruan egilearen izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa idatziko dira.

Lanak Hondarribiko Udal Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira 2013ko urriaren 31ko 12 orduak baino lehen.

Hondarribiko Udalak antolatu duen lehiaketan saritutako lanak Hondarribiko Udalaren esku geratuko dira eta Udalarena izango da lan horiek erakutsi eta argitaratzeko eskubidea, egilearen izena adieraziz.

Lan hauek prentsa idatzian, ohiko argitalpen modura edota internet sarean edo erakusketa baten bidez eman ahal izango ditu ezagutzera. Egileek ez dute jabetza eskubiderik jasoko. Saririk jasotzen ez duten lanak Hondarribiko Udaleko Euskara Sailean jaso ahal izango dira 15 egunez sari banaketa egiten denetik. Epe horren ondoren egileek ezingo dute lanik berreskuratu.

Epaimahaia Udal Euskara Batzordeak izendatuko du.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Zernahi gertaturik ere, sariketako partaideak ontzat eman beharko dute Udalaren erabakia.

Epaimahaiaren ustez lanek behar adineko mailarik ez badute, saria eman gabe utzi ahal izango da.

Saritutakoek bi asteko epean bidali beharko dute, Hondarribiko Udaleko Euskara Zerbitzuko helbide elektronikora euskara@hondarribia.org, edo posta arruntaz (Hondarribiko Udala, Euskara Zerbitzua Kale Nagusia 20, Hondarribia) banketxe edo aurrezki-kutxak emandako agiria, urte horretan kontuaren titularra bera dela egiaztatzen duena.

SARIAK

A Maila

1. saria: 300,00 €.

2. saria: 200,00 €

B Maila

Maila bereko bi sari

Saria: 150,00 € eta komiki-liburuak

Saria: 150,00 € eta komiki-liburuak

D Maila

Maila bereko bi sari

Saria: Komiki-liburuak

Saria: Komiki-liburuak.



Oharra: Sari hauei %15a kenduko zaie PFEZerako